# Balorezko proposamena

Gure proiektuaren xede nagusia gizakion osasunean oinarritzen da. Hau da, lehen aipatu dugun bezala, Covid-19ak hainbat neurri hartzera eraman gaitu, lehioak irekita edukitzea, esate baterako. Izan ere, neguak Euskal Herrian nahiko hotzak direnez, hozteko erreztasuna dago. Pentsatuko duzue irtenbideetako bat berogailua piztea izan daitekeela, baina gaur egun garesti daude. Negua hotza denez, erreztasun handiagoa dago katarroak hartzeko edota gripea harrapatzeko. Beraz, horregatik sortu nahi izan ditugu honako jantzi hauek.

Ildo beretik, hasieran esan bezala, suposa dezagun pandemiatik atera garela eta neurri horiek dagoeneko ez direla behar. Kasu horretan, neguak hotzak izaten jarraitzen dute eta pentsatzen dugu gure proiektuak garai horietan etekingarriak izaten jarrai dezaketeela eta jende askok erabiliko lituzkeela, kirola egiteko, paseatzeko, etab.

Orain, ikastetxe batean egin dugun merkatu ikerketa bat ikusiko duzu





















Honekin gure proiektua nondik joan daitekeen ikus dezakegu. Argi dago jendearen iritzia nahitaezkoa dela guretzat, gure produktuez pentsatzen dutena, erabiliko ahal duten, haien prezioa eta horrela beste hainbat. Guk galdetegian prezioa, arropa mota, adina eta arrakasta izango al duen gure proiektuak galdetu diegu eta guztira lortu ditugun erantzunak honako grafiko hauetan jarri ditugu, haien bata-bestekoa ikusteko. Iritzi guztiak ikusita, gure produktuak probetsugarriak izan daiteezkela argi geratu zaigu.